


Diskoak

IKER BARANDIARAN



Piztu herria.
Emon.
Babel Musik.
Iraupena: 32'16".
8 euro.

Jaietako plazak berritu beharra

BERGARAKO HERRIA operazio gune daukan zortzikote honek garapen handia egin du azken urteotan. Euskal folk eta rocketik abiatuta, aspaldian ska eta bestelako doinu beroetara hurbildu dira haizezko instrumentuek protagonismoa hartuta. Ander Barriusorekin Eibarren grabatu eta Katarainen nahastutako emaitza dotorea da; Emon jaietarako talde aproposa bilakatu du, gaztea eta bizi-bizia. Jai giroa, aldarrikapena, dantza eta melodia borobilak

batzen ditu. Badira ska eta rocketik edaten duten piezak, Toots & The Maytals euskaratuta, raggamufina, folka eta popa batera aurki daitekeen bidegurutzea, eta trikitia, Balkanetako oihartzuna eta dub-a batera urtuta duen ontzia ere. Are gehiago, Bergarako jaietarako idatzitako *Piztu herria* kantari buelta erdia eman diote. Plazak aldatzen ari dira, ezta?

www.emon.tk

Emon

«Bide azkarrena ez da onena. Patxadaz bizitzen ikasi beharko genuke»

Zer daukazue emoteko? Eta zer eskatzen duzue trukean?

Kontzertuetara datorrenari zerbait berezia eskaini nahi diogu eta horretarako agertoki gainean dena ematen dugu. Kontzertu bakoitzera ondo pasatzera goaz. Trukean nahi duguna jendearen erantzuna da eta orain artekoa oso positiboa izan da. Eta gure asmoa da ahalik eta jende gehienarengana heltzea.

Euskal folk eta rock doinuetatik ska musikara hurbildu zarete gehiago. Zer dela-eta?

Uneoro eboluzionatzen ibili gara eta haizezko instrumentuen sarrearak zerikusi handia izan du aldaketan. Gainera, taldean zortzi pertsona izanda, bakoitzaren ekarpenak gehitu eta musika aldaketa ahalbideratu dute.

Erraza da talde moduan "zuen bidea" egitea?



Bakoitzak bere bidea egiteko mezua zabaldu nahi dugu. Era berean taldean ere gure bidea jorratu nahi dugu. Egiten duzun horretan sinis-tea da gakoa, ez baduzu zure proiektuan sinisten nekez egingo duzu aurrera.

Lerro zuzena ez da beti onena, ezta?

Azkarrena izango da, baina ez onena. Ez gaude ados bizitzaren filosofia horrekin, patxadaz bizitzen ikasi beharko genuke. Dena

azkar egin nahi dugu eta kontuan izan behar da naturari errespetua zor zaiola. Gastu ekonomiko ikaragarria eta zentzugabeko naturaren suntsiketa ekarriko duen makroproiektua daukagu aurrean.

Non aurkitzen zarete eroso-ago, gaztetxean edo plazan?

Ez daukagu leku gustukoa-gorik, bietan aritzen gara gustura. Askotan gutxien

espero duzun lekuan eta momentuan izaten da kontzerturik onena.

Nolakoa izan da grabazio prozesua?

Bi hitzetan esatearren, ilusioz betetako garaia izan da. Hamar egunean grabatu genuen guztia eta asko disfrutatu dugu prozesuan. Ander Barriusorekin lan egitea oso atsegina izan da eta bera prozesuan erabat murgilduta egon da. Eta Katarainen egindako nahasketekin ere oso gustura gelditu gara. ■